

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

495

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 17koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Honen bidez, Luis Alberto Oribe Novales jauna Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendari-tzako Izapide eta Baimenen arduradunaren kargutik kentzea xedatzen da.

Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluari jarraikiz eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Luis Alberto Oribe Novales Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendari-tzako Izapide eta Baimenen arduradunaren kargutik kentzea (511381 kodea; 1. dotazioa) eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-kentze horrek 2014ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu adminis-trazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 17a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.